

GALSORO ERREAK

1

Permisoarekin etxeratzean jakin du gauzak gaizki daudela. Aitak begiradarekin eta buruarekin galdetu dio. Militarrak lasai ikusi dituela erantzun dio, lasaitzeko asmoarekin baino ezjakintasunak bultzatuta. Arrebak jirabiran, galdezka, opari ekarritako txokolate ontza eskuan, miaztuz iraupenean. Kuarterlean, azken asteetan mugimenduren bat nabaritu badute ere, egunerokotasuna beste bat da. Amari ez zaio gustatu ekarri duen bibotea.

Mandioaren sarreran dago eserita, murkoaren gainaldeko askari begira. Kanilatik sartzen den urak kanporako bidea bilatzen du, jostalari, aske nahian. Zapaburuak igeri. Asunak lotsagabe ur gardeneko harraskaren inguruan, indartsu, burua zut. Aitzurra zutik, zain.

Buruan dabilzkio haurtzaroa eta kinto joan behar aurreko hilabeteak, arnas batean, betean. Jolasak eta bidaia amestuak; isil gordean babestutako maitasun gazteak, inori esaten ausartu gabeko izarren argi sotil ikaratiak; gaztaroko odol beroa, etxea eta herria utzi eta mundua ezagutzeko gosea, lagun lotsagabeen alaitasuna, pattarraren errea eta izarra, besteak baino argiagoa, ikarati artean, soineko artean; aberriaren odol pattartua, behar zaituka, etxea eta basoak utzi eta galsoro erre amaigabeen ikara beldurtua. Bostetik bat, bera, bizitzaren zor-tea.

Mandioaren sarreran lotu ditu aske izan dituen pentsamenduak, ulertu ditu gurasoen begi-zulo eta kezka aurpegiak. Min emateraino estutu du aitzurra eskuartean.

Ihes egin ala itzultzeko erabaki ezin hartua, asunak aitzurpean, zuztar ebakiak. Ameriketarako bidean Frantziara joan direnak gogoratu ditu. Dena utzita, denak utzita. Ez dago erabaki errazik. Gauzak gaizki egonda ere, ehun urterik ezin luzatu, amaituko da, amaituko halako batean; behar zaitu, etxeak.

Bizitzak ez daki barne erabakiez, ez du denborarik galtzeko, lehertu egiten da udaberriaren berde lotsagabeekin batera.

Eraman zituzten, behar zituzten, agindu zieten. Agindutakoa betetzeko daude soldaduak, gaur batera, bihar bestera, xakeko pieza sotil.

2

Gauetz eraman dituzte, kamioietako argiak itzaliak. Etsaiaren berririk ez; nor, non, zergatik, egin gabeko galderen erantzun eza. Gerra, hitza bakarrik ezagutzen dute oraindik, ez tirorik, ez leherketarik. Gerra lasaia. Eta lasaitasunak urduritzen badaki, behar baino gehiago. Poztu egin dira mugitzeko agindua heldu zaienean.

Arin egin dute lekualdatzea, arinegi gauzak ondo izateko. Materiala eta jatekoa ere utzi behar izan dituzte. Makurtuta, makurtuta, entzun dute agindu ozena, zutik egin du zureak. Konturatu orduko mendixkan behera eginak dira.

Hurrengo malkarra igotzen hastearekin belarrietan burrunba sentitu du, burmuineraino sartutako erleren baten antzera. Sorgortu egin dizkio barrenak. Halere, nahikoa du lehertu beharreko hauspoa baretzen, hankak dardarka, hozzetan izerdi. Kaskoa eta botak kendu nahi izan ditu, arma utzi, indar ahuldua. Ikusmena gutxitzen sentitu du, neke

itsua. Eta berriro sentitu du burrunba, erle-dantza, gero eta ozenago. Bilatu aterpea, aterpea, entzun du nonbaitetik datorren letania.

Orduan entzun ditu leherketak, benetakoak, tiroen ziztua, zuzenean, erlategia buru gainean. Haitzaren atzean kikilduta, dardara jabetu zaio gorputzaz, eta beldurra ezagutu du, benetakoa. Negar-zotinka ari den bitartean, indar ezkuturen batek mugitzea ere oztopatzen dion bitartean, bada erabaki basatiren batek bultzatuta aterpetik irten eta tiro egiten duenik, beldur gizatiarra galdua.

Prakak bustita sumatu eta begiak lehortu dituenean ikusi du aurrez aurre begiratzen dion arma. Poztu egin da uniforme berdina ikustean, bandera berdina, baina ez dio luze iraun poztasunak. Ausartak babesean geratu dira, indar ezkutuek ahituta, eternitatean.

Gauetz ekarri dituzte, kamioietako argiak piztuak. Uniforme eta bandera berekoak etsaiak, egin gabeko galderaren erantzun.

3

Zeldaren izkinan dago zain, ofizial batzuekin tratua noiz egingo, esan diete, trukea, trapu bera aitzakia.

Ez daki gauzak gaizki daudela. Zeldan, nahiz eta azken asteetan mugimendua nabaritu ateez harantza, egunerokotasuna beste bat da. Ez da traturik izango, azkenean, ofizialak fusilatu dituzte, mastan trapukeria.

Hozkirria zabaldu da, ahapeka, letaniaren gandua, hil egingo dituzte. Mandioaren sarreran haurtzaroa eta kinto joan behar aurreko hilabeteak, arnas batean, betean, goitik behera bizkarrezurra izutuz, izoztuz.

Aldare izan nahi lukeen mahai zahar bat jarri dute, pipiak jotako gurutzea, kandelen argi hori minbera, malkoka urtua, ateko sareta, zelda berria, hil aurreko hileta.

Zergatik ordea? Bizitzaren zortea! Eta nork egin du zotz? Aberriagatik! Eta zer da aberria? Aberria ala hil! Esaldi ikasia, errepikatua, esanahi lausotua. Gandua udaberriko bizipoz berdexka ilun-ikaratzen. Behar zintuen, zintuzten.

Baina ez da nahikoa, ez du hil nahi, nork egin du zotz, noren izenean, berea da bizitza, berea. Baina bizitzak ez daki barne erabakiez. Lo gabeziaren nekeak, pentsamenduaren hartzitzeak, argitzen duten bezala lotarazten dute.

Goizaldeko esnatze zakarra, amaieraren hausnarketa, zentilenen pauso metalikoak, arnasaren beruna...

Ate ertzean zurrumurrua entzun du, isiltasuna gero. Giltzarapoaren hots herdoildua, mixerken aiena, isiltasuna atzera. Iluntasuna sartu da, pisutsu, kapela buruan. Atzetik argi izpia, bakana, begiak itxiarazteko hainakoa. Apaizaren sotanak ez du lurrik ukitzen.

Lo gabeziaren nekeak, pentsamenduaren hartzitzeak lagun-duta, zutitu eta besoak luzatuz hitz egin dio. Ez dut hil nahi. Eta itzal ilunak ahoa ireki aurretik jarraitu du. Bizitza besterik ez dut nahi, nirea da, ez du inork kentzeko eskubiderik, inork. Noren izenean, noren baimenarekin. Ulertzen al du berorrek?

Kapela kendu gabe jarraitzen du apaizak.

Oraindik ez dut zeruko bizitzarik nahi, ez du berorrek ulertzen? Gaztea naiz, gurasoak zahartzen ari zaizkit, lurrak ditut zaintzeko, basoak, seme-alabak hazi nahi nituzke.

Gudu-zelaian izan balitz, turuta soinuaren eta odol goritutako lagunaren artean..., baina lizundutako zoko triste honetan, zergatia jakin gabe, bakardadean hil beharra..., ez al du berorrek ulertzen?

Lurrean etzan da, negarrez eta amorrazioz.

Seme –entzun du sotana beltzaren barnetik–. Gizonen ize-
nean natorkizu, ez Jainkoarenean. Bizitza ekartzera natorkizu.
Entzun ondo, ez dugu eta galtzeko denborarik: zu aitortzeko
aitzakiarekin sartu naiz eta hala ari naizela pentsatu behar du-
te, beraz, jarri belauniko eta entzun. Zorionez, zutaz galdetu
duen lagun indartsuren bat bada eta, bide zuzenetik zuretzat
graziarik lortu ez duenez, fusilatuko zaituen tropel burua eros-
tea lortu du, zailtasun larri eta arriskutsuen artean. Zuri dago-
kizun fusila bolbora eta takoz kargatua egongo da eta, tiroa
entzuten duzunean, besteak bezala jausiko zara; lur eman au-
rreko gelara eramango zaituztete eta zirkinik egin gabe jarrai-
tu beharko duzu, alboan izango dituzun benetako hildakoen
antzer. Egunsentia indarge izango da oraindik eta horrek la-
gunduko dizu egin beharrekoa susmorik gabe egiten. Esku
errukitsu batzuk jasoko zaituzte eta gauera arte gordeko. Or-
durako ihes-bidea errazagoa izango da.

Ez du sinetsi lehen unean, minari mina gehitu nahi diote,
zaurian hazka egin.

Orain, errezatu ezazu “Aita Gurea” absoluzioa ematen dizu-
dan bitartean, aitortza amaitu dugula sinets dezaten, eta kon-
tuz jokatu, inork egia susma ez dezan.

Baina hau egia al da? Ez ote dira hitz errukitsuak nire
azken orduak gozatzeko?

Lasaitasuna eskatzen dizut, seme, zurekin egongo naiz fusi-
latuko zaituzten unean. Aitaren egin du bizkarra eman aurre-
tik.

Dardarka geratu da atea burdin zarata atera duenean. Es-
perantzak jantzi dizkio ezpainak, baina ilundu egin ditu bere-
hala, hura guztia, egia bada, inork susma ez dezan.

Orain badaki gauzak ez daudela hain gaizki, nahiz eta azken asteetan mugimendurik nabaritu ez, egunerokotasuna beste bat baita zoko ilunean.

4

Fusilatzeak egin ohi diren kartzelako hormara eraman ditzutenean, egunsentia lotsati da artean, lainoek irteera atzeratu nahi baliote bezala. Hiru lagun triste eta burumakur, hiru soldadu, tropel burua laugarrena, eta apaiza, errezoan bide osoan.

Ormara heltzean, hiru presoak lerroan jarri dituzte, bata bestearengandik apur bat urrunduz, eta soldaduak ezarri ditu, ondoren, buruak, bakoitzak lan bat balu bezala, arin amaitzeko gogoarekin.

Exekuziora koronela ere hurbildu da azken unean, zer suma edo odol egarriz esnatuta, auskalo. Bidean errezoan etorri den apaizari errudun haien begiak trapuz estaltzeko eskatu dio, eta ondoren aldentzeko apur bat.

Oskorri goizean, euria arratsean, otu zaio horman gainetik ikusterik izan duenarekin. Goizaren isilunea mezatara deitu duten hurbileko kanpaiek dardarazi dute.

Koronelak burua mugitu du eta tropel buruak ahots lehor eta premiazkoarekin eman ditu aginduak.

Bat-batean isilune handi bat, eztanda nahasi eta desberdin bat, eta hiru gizasemeen gorputzek hautsa harrotu dute lurre-ra pisutsu erortzean.

Tropel buruak itzulerako bidea agindu die soldaduei, laguntzaileak gorpuak biltzera etorri aurretik.

Une hartan, atzerago geratutako koronela hurbildu da, eta bota luzeekin gorpuak mugitu ditu.

Hau bizirik dago oraindik, dardara egin dio hankak.

Tropel burua geratu egin da, seko, zerbait esan nahi izan du, baina koronelaren begirada zorrotz eta galdetzailearekin egin du topo. Gerrian daraman zorroa biluzi eta pistola ateraz, erdian dagoen gizasemearengana hurbildu da. Lokira zuzenduz, tiro egin du, hotz.

Sufri ez dezan, esan du koronelak.

Joxemari Urteaga